

# Erakusketa

## KARLOS IRUJO ETA JOSEBA OZKOIDI (ORTZADAR TALDEA)

**L**an honen helburua III. Folklore Ihardinaldien barruan aurkeztu zen **HERRI MUSIKA TRESNEN ERAKUSKETA** argitalpen honetan beste ikerketa lanekin batera agertzea da. Erakusketa honetan Euskal Herriko eta beste herrietako 250 musika tresna inguru erakutsi ziren Ortzadar taldeko egoitzan, argazki eta azalpen textuz horniturik. Haietako batzu ondoren sartu ditugu erakusketaren katalogoarekin batera.

Emanaldi hau Iruñean ospatu zen 1987ko urriaren 31tik azaroaren 7ra Folklore Ihardunaldien hitzaldiekin batera izugarritzko arrakasta jasan zuelarik.

Agerraldian musika tresnak, posible izan zen neurrian, ezaugarrien arabera sailkaturik antolatu ziren, eta oraingoan ere horrela eginen dugu.


Azkenik, berriz ere hemendik eskertu nahi dugu jaso genuen itzelezko laguntza, batez ere Jose Luis Loidi jaunarengandik (ia musika tresnen erdia berak utzi zuen), Iruñeko Gaiteroengandik (gaita eta dultzaina zaharrak ekarri zituzten), Javier Hernandez Arsuaga jaunarengandik (txistuaren famili esperimentala eskuratu zigun), Juan mari Beltranengandik eta Artetako Museo Etnografikotik.

## ERRONDAILA - SOKA TALDEA

Euskal musika herrikoia barruan bere garrantzia izan arren, sokazko musika tresna gutxi gorde izan dira gure egunetaraino: xirula laguntzen duen ttunttuna, edota errondaila osatzen dutenak ditugu adibide nabarmenak. Azken hauek, batez ere Nafarroan herri mailako edozein jai edo ospakizunei loturik agertzen zaizkigu.

Errabela, arrabita edo bibolina izeneko musika tresnak XVI. mendetik aurrera sartzan dira gure herrietako festeetan, beste batzurekin nahasturik. Maniura eta zarrabetea (aspaldidanik galduak) azaltzen dira gure historian zehar, geroxeago kitarra, maiz, kantuaren laguntzaile.

1. Arrabita. XVIII. mendea. Stradivariusen kopia.
2. Kitarra.
3. Bandurria.
4. Lauda.



«Sokazko musika tresnak, errondailaren osagaiak».

## TXISTUAREN FAMILI INSTRUMENTALA

Txistuaren famili instrumentala txistuaz arduratzen den Donostiako Talde Esperimentalaren lanaren ondorioa da, talde hau 1971ean J. Hernandez Arsuagak sortu zen.

Familia instrumentala bi taldetan banatzen da: klasiko-tradizionala (tonalitate bizian) eta Unibertsala, bi hauei soinu tresna laguntzaileak elkarturik hamabost soinu tresnako taldea osatzen dute. Hona hemen klasiko-tradizional taldea osatzen dutenak:

5. Silbote.
6. Txistu.
7. Txilibitu.
8. Txistu txiki.
9. Txistu haundi.
10. Silbote haundi.

## TXALAPARTA

Itxura eta joera berezi duen musika tresna honen iturburuak kokatzea zaila da, inguruko herrietan ez bait da halakorik ezagutzen. Altza, zumar, gerezi, astigar, edo bertako beste egur motez eginiko ohol baten gainean jotzen dute bi txalapartariak, bakoitzak eskuetan dituen bi makil astunekin. Batek «Ttakun» izeneko oinarritzko erritmo iraunkorra darama, eta besteak «errena» egingo du aurrekoari erantzunez eta aldakortasuna sartuz.

Galtzear zegoen musika tesna hau jai giroari lotuta agertu zaigu, bereziki sagardo lanak bukatzerakoan egindako festeetan. Egun, aldiz, izugarrizko bultzada hartu du eta Euskal Herriko edozein ekintzetan aurki dezakegu.

11. Txalaparta.

## TOBERA

Ezkongaietako bertsoak laguntzen zituen musika tresna dugu tobera.

Pregoi egunean andregaiaren etxe aurrean bertsolariak ohizko koplak botatzen zituzten eta tarteetan bi jotzaileek, burni ziri bat esku banatan, jotzen zuten, «bia» egiten zuena erritmoa markatzen eta «pikatzaila» errepikean.

Alargun bat ezkontzen zelarik, betsorik gabe ere erabili ohi zen.

Ohitura hau mantendu den eskualdea nahiko murriztua da. Azken urteetan bakarrik Oiartzun eta Lesakan entzuna izan delarik.

12. Tobera.

13. Tobera.

## TXISTUA

Euskal musika tresnarik ezagunena dugu txistua. Jatorria aintzinako garaietan kokatzen ba da ere, izen ezberdinez ezagutu izan da, gaurko «txistu» hitza berri samar izanik. Egituran ere bilakapen haundia jasan du bere itxura eta joera garatuz gaur eguneko txistu eredura ailegatu arte. Txistua jai eta beste zantza sozialak eragilea dugu, iharduera ofizialetan parte hartzen du ere. Horrela ezteietan, hiletetan, prozesioetan, dantzetan... azaltzen da.

14-15. Arantzan, 1910-1920 urtean ezpelaz egindako txistuak. Urte hoietan Eusko Ikaskuntzak txistuaren erabilpena bultzatzeko herriz herri banatu zuen Arantzako txistu egileak egin zion enkargua. Bi txistu hauek hoietarikoak dira. Batak badu bokilaren ondoan ondoko inskripzio hau: «Eusko Ikaskuntzak emandakoa».

16. Txistu zaharra.

17. XIX. mendearen hasieran Urdiainen egindako txistua.



## TXISTUAK

«Euskal Herriko txistu zaharrak».

### BESTE HERRIALDEETAKO HIRU ZULOTAKO TXISTUAK

- 18-20. Salamankako «Gaita»k.
- 21-22. Leongo «Pito»-ak.
- 23-24. Ibizako hiru zulotako txistuak.

## ADARRAK

Abeltzainak izan dira behiadarrak gehien erabili izan dituztenak, abereak deitzeko etab. Horretaz gain zenbait dantzetan agertzen dira ere, Goizuetako makil-dantzariak edo Zubieta eta Iturengo joaldunak laguntzen.

25-26. Adarrak.



«Adarrak».

## SUNPRIÑU

Mihingain bikoitzeko aerofonoen artean sinpleena dugu sunpriñua. Abeltzainek izan dira egin eta jo egin dutenak. Tresna hau zuhaitz batzuen adarren azalaz egiten da, hala nola urkia, urritza, lizarra, elorria...

Ebakidura espiral batekin kentzen da azala adarretik, sunpriñuaren lehen-go osagaia lortzen delarik: gorputza. Gorputz hau ttuntturro baten antza dauka, gaitaren antzera. Bigarren osagaia bi elor-zuri dira, adar azalaren muturrak hersteke.

Europar zehar oho tresna ezaguna dugu sunpriñua.

Sunpriñua bakarrik Udaberrian egiteko aukera dago, landarea izerdiz beterik dagoenenan, bestela ezin baita azala askatu.

## SILBO

Hemen erakusten dugun silboa La Hoyan (Araba) aurkitutako baten birsorketa da. Honekin beste neurri batzuk zituzten bizpahiru gehiago aurkitu ziren, eta hauetariko baten bat zuloren bat zuen, gutxienez bi nota lortzen ahal zuelarik. Denak orein adarrez eginak daude.

29. Silboa. La Hoyako azterkuntzetan aurkitutako historiaurreko silboaren birsorketa. Orein adarrez egina.

### TXULUBITA

Egite errez eta hedadura haundiko tresna hau zuhaitz batzuen adarrez egiten da, hala nola makala, lizarra, gaztañondo, urkia, etab. Adarrak Uda-berrian moztu behar dira orduan zuhaitzak izerdi asko baitu.

Gure herrietako haurrak izan dira egile eta jotzaile trebeenak, batzuetan soinu aldakorrek ere lortu izan dituztelarik.

30. Iruñeko txulubita. Udaronoz egina. Hau izan da aurkitu dugun txulubita bilakatuena.

31-32. Errazkingo txulubitak. Gaztainonoz eginak.

33. Idiazabalgo txulubita. Makalaz egina.


34. Errazkingo txulubita. Lizarraz egina.

### XIROLARRUA

Nahiz eta oso ezaguna eta hedatua izan Euskal Herria inguratzen duten herrietan, gure herrian bakarrik artxibo eta ikonografian aurkitzen dugun tresna bat da. Gure inguruan bi motetako xirolarruak aurkitzen ditugu, biak ezaugarri berbera badute ere, hau da, larruzko zato haundi bat erabiltzea haizea botatzeko. Ezberdintasuna «punteiro»-an dago. Batzuk klarinete bikoitz bat erabiltzen dute eta besteek mihingain bikoitzeko bakarra.

35. Landetako xirolarrua. Bildots larruz eta ezpelez egina.

36. Okzitaniako xirolarrua. Ahuntz larruz eta ezpelez egina.



«Xirolarrua».

## ZARRABETEA

Tresna hau kaxa luze batek, barnean sokatxo batzuk dituelarik, osatzen du. Sokatxo horiek dirdir egiten dute kaxaren erdian dagoen gurpil baten igurtziarekin. Gurpil hau kanpotik mugitzen da zikoin baten bidez. Eta aske gelditzen den eskuarekin jotzen da teklatu bat soinu ezberdinak sortuz.

Aintzinean erabili izan arren zarrabetea, egun arras desagerturik dago gaurko euskal organografiatik. Bakarrik ikonografia eta artxiboetan aurkituko dugu.

37. Zarrabetea. Alemanian egina.

## ALBOKA

Beste aerofono hau klarinete bikoitzen atalekoa da. Bi kainaberak, barnean mihingainak dauzkatenak, zurezko uztai baten gainean, eta bi adar, batak kainaberaren mutur batena atakaren funtzioak betetzen duelarik eta besteak beste muturrean soinua haunditzeko barrunbearen funtzioa betetzen, dira tresna honen osagaiak.


Tresna honen joera oso berezia da, airea geratu gabe bota behar baita. Aire botatze honen teknika oso ikasbide zaila dauka, arnasa sudurretik hartzen den bitartean, ahotik bota behar da. Ahoa xirolarru baten zatoan bihurtzen da.

## XIRULA

Hiru zulozko txilibitu honek txistuaren antza dauka, baina laburragoa denez gero tonu altuagoan ateratzen da soinua.

Beti ezpelaz egin ohi dira, baina ataka adarrez babesturik aurki daiteke.

Egun arte Zuberoan jo izan da ttun-ttunak lagundurik, baina aintzinako hedadura zabalagoa izan zen.



«Xirula mota ezberdinak».

## BESTE HERRIETAKO HIRU ZULOTAKO XIRULAK

56. Astorgako «pito». Leon.
57. Peruko hiru zulotako xirula.
58. Venezuelako xirula.
59. Probentzako «galubet».

## TRONPA-MUSUKITARRA

Bi izen hauek Europan zehar oso ezaguna den tresna bat gogorazten digute. Erdian burdinezko mihingain bat duen aintzinako giltza baten antza dauka.

Tronpa ahoan jartzen da, burdinezko mihingainak dardara erazten zaioenean ateratzen duen soinua, ahoa berberak haunditzen duelarik. Ulertzen denez oso soinu itzalia dugu tronparena eta horregatik etxeetan edo leku isiletan erabili ohi da.

Esan dugunez, oso tresna ezaguna izan da Europan zehar eta hemen Euskal Herrian, mende honen hasiera arte jo izan da.

## BESTE HERRIALDETAKO KLARINETE BIKOITZAK

61. Tunisiako klarinete bakuna.
62. Tunisiako klarinete bikoitza.
63. Ibizako «Reclam de Xeremiens».
64. Ejiptoko klarinete bikoitza.
65. Indonesiako klarinete bikoitza.
66. Israelgo klarinete bikoitza.
67. Ejiptoko «Argut».
- 68-69. Indonesiako klarinete bikoitzak.
- 70-71. Indiako klarinete bikoitzak.
72. Marokkoko klarinete bikoitza.

## TTUN-TTUNA / DANBURIA / SOINUA

Kordofonoen familikoa, zurezko erresonantzi kaxa bat eta sei sokatxo osatzen dute tresna hau. Nahiz eta lehen sei sokatxo horiek tripazkoak izan, gaur egun sintetikoak dira. Soinua ateratzeko sei sokatxo hauek jo izan behar dira zurezko makiltxo baten bidez.

Europa osoan hedatua izan arren, Euskal Herrian duela gutxirarte bakarrik Iparraldean mantendu izan da txirula laguntzen.

## TXANBELA

Mihingain bikoitzeko tresna honek, nahiz eta dultzainaren familikoa



izan, ba du bere joera berezia. Joera hau nota batetik bestera pasatzean nabaritzen da: notaren aldaketa ez da lortzen hatzamarren jarrera aldatuz, airearen presioa aldatuz baizik.

Nota luzeak ez dira zintzilik gelditzen. Hatzamarren jarrera aldatu gabe hasten dira jeisten musika eskalatik behera.

Zuberoan joa izan da.

## PANDERO ETA PANDERETA


Oso musika tresna herrikoiak izan arren, gaur egun ia ia bakarrik Eguberrietan erabiltzen dira. Ohiturak lagungarritzat erabiltzen ditu, bai beste musika tresnak laguntzen, bai talde instrumentalak osatzen (hala nola trikitrixa eta panderoa, alboka eta panderoa...); baita abestiak laguntzen ere, eta ez bakarrik Eguberrietan kantatzen diren abestietan, urte guzian zehar eginda koetan baizik.

Uztai bat estaltzen duen tripazko partxea da osagairik nagusia metalezko txintxinak lagungarri dituelarik.

82. XIX. mendeko bigarren erdiko panderoa. Pergaminoz eta pagozuzuz egina. Laguardia.

83. Pandereta. Goiko panderoaren ezaugarri berberak ditu.

84. Egungo panderoa.



«Mintzezko musika tresnak: panderoak eta eltzegorrak».

## ELTZEGORRA

Panderoaren famili berberako tresna dugu eltzegorra, baina honetan tripak estaltzen du hondurik gabeko eltze bat. Partxea edo tripa kanabera edo

sokatxo fin batez zeharkaturik dago. Eta soka edo kanabera hortatik leunleunki tiraka, partxeak dardara egiten du soinua sortzen. Soinu hau eltzeak haunditzen du.

85. Eltzegorra.

86. Indiako eltzegorra. Tigre ehizean erabiltzen ohi zen.

## IDIOFONOAK

Nahiz eta musika tresnak bezala onarturik ez izan, atal honen barnean sartzen ditugun gauzakiak bi izan direla sailkaturik hoiien barnean beraien helburua berbera baita: zarata egin.

Batzuk, karrakak eta «carranclon»ak, Aste Santuan erabili ohi dira ofizioetara deitzeko; beste batzuk, txilinak, eskilak, joareak, etab. ihauteri eta zenzerradetan erabili dira, baita izpiritu gaiztoak urruntze ekintza guztietan.

Eta bukatzeko etxean aurkitzen ditugun beste «musika tresna» horiek, hala nola botilak, koilarak, almaitzak etab. kantuari laguntzeko erabili direnak.

## DULTZAINA - GAITA

Euskal Herriko mihingain bikoitzeko tresnen artean dultzaina dugu bilakatuena eta ezagunena. Nafarroan zehar hedaturik dago eta ikus dezakegu kaletan, kontzertuetan, herriko dantzetan, Udalak laguntzen, etab.

Joan den mendean oso joera teknika ona lortu zen bainan mende honen hasieran hasten da gaitaren depreziazioa sestra behearena guda ondoren lortzen duelarik. Hirurogei hamarkadan hasi zen gaitaren berreskurapena eta gaur, berriro, oso momentu onean aurkitzen dugu.

Gipuzkoa eta Bizakian bilakatu dira metalezkoak izan arte. Nafarroan, ostera ezpelaz eta ebanoz egiten dira.

## BESTE HERRIALDEETAKO MIHINGAIN BIKOITZEKO TRESNAK

Atal honetan erakutsi nahi izan dugu musika tresnen mota honetako hedadura. Horrela, ikus dezakegun tresna hauek Mediterraneo inguruetako herrietan (bai Iparraldean, bai Hegoaldean), Ekialde-hurbilean, eta Indiatik eta Himalaia mendikatean bizi diren herrietatik pasatzen Txinaraino.

124. Miranda de Ebroko dultzaina zaharra.

125. Zeramikazko dutzaina.


126. Errioxako dultzaina. Gailtzak ezarpenerako lehen urratsa.

127-128. Bretañako bonbardak. Giltzekin.

129. Indiako sundri.

130. Turkiako Zurna.

131. Indiako Nabargarán.



«Gaita edo dultzinak eta txanbela.

- 132. Txinako Pi-nau.
- 133. Valenciako Donsaina.
- 135. Galizako xiolarru baten punteiroa.
- 136. Marokkoko Chirimia.

- 137-138. Eskoziako Practic Chanter.
139. Gaztelaniako Dultzaina.
140. Castellongo dultzaina.
141. Turkiako Zurna. Atakak hiru jarrera diru. Jarrera aldatzen tresnaren tonoa aldatzen da.
142. Indiako Kalama.
143. Italiako dultzaina.
144. Bretainako Bonbarda. Giltzarik gabekoa.
145. Valencianako donsaina.
146. Castellongo dultzaina.
147. Guatemalako chirimia.
148. Indiako Sehnai.
149. Segoviako dultzaina.
150. Gaztelaniako Dultzaina.
151. Kataluñako Gralla.
152. Salamancako Dultzaina.
153. Indiako Sehnai.
154. Nepalgo mihingain bikoitz pare bat duen musika tresna.

## TRIKITRIXA

### AKORDEOIA

Joan den mendearen amaieran jotzen hasi zen trena hau Euskal Herrian.

Trikitrixarekin sortzen zaigu musika egiteko modu berri bat, alde batetik aintzinako ezaugarriak mantentzen duelarik, bestetik elemento armoniko eta polifonikoekin erausten dizkiolarik.

Denborak joan ta etorri eta akordeoi diatoniko hori piano akordeoia bihurtzen zaigu. Akordeoi berri honek bai trikitrixa, bai beste herri musika tresnak, hala nola txistua edo dultzaina, baztertzen ditu urtetan zehar.

Egun ikus ditzakegu bi tresna mota: Trikitrixa, beti panderoaren laguntzarekin eta maiz panderojotzaileak kantatzen duen bertsoekin; eta akordeoia, bai bakuna, bai orkestra txiki baten barnean, bai akordeoi banda baten partaide nagusia izaten.

### KASTAÑETAK


Idiofono den musika tresna hau gure dantzetan erabili izan ohi da erritmoa laguntzeko, orain dantza hoietariko gutxi gelditzen badira ere, Araba eta Otsagikoen kasuetan erabiltzen dira.

163. Gaztelaniako Tejoletak.
164. Galizako Tejoletak.
165. Gaztelaniako Tejoletak.
166. Andaluziako profesionalen «Palillos».
167. Kastañetak.

168. Castañueles. Asturias.
169. Castañuelas.
170. Asturiasko Castañueles.
171. Murciako Castañuelas.
172. Kanariasko Chacaras.
173. Leongo Castañuelas.
174. Ibizako Castagnoles.
175. Aragoiko Castañuelas.
176. Andaluziako Palillos.
177. Italiako kastañetak.
178. Salamancako Castañuelas charras.
179. Asturiasko Castañueles.
180. Mallorkako Castañuelas.
181. Andaluziako tela prentsaturatzeko palillos.
182. Asturiasko Pitos.
183. Asturiasko Castañueles.
184. Salamancako Castañuelas charras.
185. Asturiasko Castañueles.

#### PERKUSIOZKO MENBRANOFOAK

Oso talde ezaguna eta hedatua munduan zehar oraingoan eskuetan dugun musika talde hau. Hemen Euskal Herrian badugu mota honetako eredu batzuk hala nola danborrak eta atabalak, eta bonboak. Orokorki beste tresna



«Txistu eta gaitaren dambolina, atabalak eta makiltxoak».

batzuen lagungarri ditugu tresna hauek, noizean behinka ere bakarka joak izan direlarik.

186. Bonboa.
187. Danbolin eta atabalen baketak.
188. Bonboaren maza.
189. Mende honen hasierako gaitaren atabala.
190. Gaitako atabala.
191. Txisturako atabala.
192. Atabala.
193. Gaitarako atabala.

## FANFARREA

Hedadura aldakor baten musika talde bat dugu fanfarrea. Talde honen jatorria XX. mendearen hasieran kokatzen da Ipar Euskal Herrian. Fanfarrea osatzen duten tresnen artean haizezkoak dira nagusi, perkusiozkoekin batera. Musika talde hau agudo hedatu zen Iparraldean zehar aintzinatik erabilitako tresnak (arrabita, xirula...) baztertuz edo barneratuz. 1960-1970 hamarkadan Hegoaldera pasatzen da, egunarte arrakasta handia lortuz.

194. Fanfarrea.
195. Baionan egindako kuprezko saxoa (1830).
196. Bonbo eta txundak.
197. Bajoa.
198. Bonbardinoa.
199. Txundak.
200. Errekintoa.

## DANTZARAKO TRESNAK

Atal honetan sartuko dugu gure erritozko dantzetan erabiltzen diren tresna guztiak (ezpatak, makilak, arkuak, brokelak, makiltxoak, uztaiak, etab.), baita ere janzkeraren barna aurkitzen ditugun beste edozein ozen gauzaki, hala nola tzintzarriak, ezkilak, joareak, etabar.

201. Tzintzarriak. Dantzari Dantza.
202. Tzintzarriak. Otsagiko Dantzak.
203. Ezpata. Dantzari Dantza.
204. Makilak. Berako Makildantzak.
205. Makiltxoak. Nafarroako Herribeherako makildantzak.
206. Makila. Ezpata Dantza.

## BESTE MUSIKA TRESNAK

207. Okarina.
208. Tronpetina.

209. Klavikordioa. 1870 arte Arketasen erabilia. Kutxa pinuzkoa da eta teklatua intxaurrondoakoa. Dena zurez iltzeztaturik dago eta erroak burdinlantzezkoak dira. Isabelen garaikoa.

210-212. Harmonikak.

213. Biarnoko kitarra kubista. Mende honen hasierakoa.

214. Rabela.

215. Balalaika.

216. Thaiandiako txilibista.

217. Boliviako Tarka.

218. Kataluñako Fuviol.

219. Argeliako Txilibista.

220. Bulgariako txilibista.

221. Bulgariako txilibista.

222. Jugoslaviako txilibista.

223. Txinako Txilibista.

224. Colombiako zeharkako txilibista.

225. Dvojnice. Txilibista bikoitza. Jugoslavia.

226. Errumaniako txilibista.

227. Jugoslaviako txilibista bikoitza.

228. Greziako txilibista bikoitza.

229. Japongo Ruiteki.

230. Piccolo.

231. Kataluñako giltzadun Flaviola.

232. Kataluñako giltzarik gabeko Flaviola.

233. Maliko zeharkako txilibista.

## ARGAZKIAK

Erakusketan aurkeztu ziren argazkiak ondokoak dira:

1. Antonio Elizalde txistularia eta beste baztandar soinulari herrikoiak hogeitamar hamarkadan.

El txistulari Antonio Elizalde y otros músicos baztaneses en los años 30.

2. Cortes-ko dantzariak, Deabru eta Aingeruarekin, Lizarrako Perez gaiteroekin. Argazki Iruñean egina da 1932. urtean Euskara egunearen ekintzetan barruan.

Danzantes de Cortes con el Angel y el Diablo, acompañados por los gaiteros Pérez de Estella (instantánea tomada en el Bosquecillo de Pamplona durante la celebración del día del Euskara). 1932.

3. Haize musika talde Otsagiko Santiago jaietan berrogei hamarkadan.

Orquesta popular de viento en las fiestas de quintos de Ochagavía. Años 40.

4. Baztango Maurizio Elizalde txistularia eta manuel Jaurena atabalarai.

Mauricio Elizalde y Manuel Jaurena. Músicos populares de Baztán.

5. Baztango mutildantzariak Aita Donostiarekin Bilboko Erakustazokan 1933. urtean. Elizalde aitasemeak txistu eta atabalarekin.

Mutildantzaris de Baztán con el P. Donostia en la Feria de Muestras de Bilbao en el año 1933. Antonio Elizalde con el txistu, y su hijo al atabal.

6. Erriberriko Zabal gaiteroak.

Gaiteros Zabal, de Olite.

7. Otsagiko rondaila. Hogei hamarkadan.  
Rondalla en Ochagavía. Años 20.
8. Ramuntxo orkestra 1959ko Ihauterietan. Luzaide.  
Orquesta Ramuntxo en Carnavales de Valcarlos. Año 1959.
9. Barkoxeko dantzariak mende honen hasieran, txirula eta ttun-ttunaz lagundutak.  
Dantzaris de Barcus a comienzos de siglo, acompañados de txirula y salterio.
10. Miarritze inguruko dantzariak, akordeoia, atabala eta txirulez lagundurik, dantzan.  
Dantzaris en los alrededores de Biarritz acompañados de txirula, atabal y acordeón.
11. 1940ko Santiago eguna Otsagin. Haize eta korda herri musika taldea.  
Día de los quintos (25 de Julio) en Ochagavía. Año. 1940. Orquesta popular de viento y cuerda.
12. Maurizio Elizalde hogeitertekin.  
Mauricio Elizalde a los veinte años.
13. Haize eta korda musika tresnen soinulari herrikoien taldea Arizkungo inguruetan.  
1920. urtea.  
Orquestilla popular en el término municipal de Arizkun hacia 1920.
14. Iruñea. 1933. urteko S. Fermin Txikietan ospatutako Txistulari Alardea.  
Alarde de Txistularis en Pamplona con motivo de S. Fermín Txiki. 1933.
15. Etxauriko haize soinu tresnen taldea Iberoko jaietan. 30 hamarkadan.  
Banda de Etxauri en fiestas de Ibero. Años 30.
16. Gaiteroak Arbizuko jaietan. 1940. urtea.  
Gaiteros en fiestas de Arbizu. Año 1940.
17. Soinulariak Otsagiko herrian 1934. urtean.  
Músicos en las fiestas de quintos de Ochagavía. Año 1934.
18. Ilunberriko banda 1924. urtean.  
Banda de Lumbier en el año 1924.



Ilunberriko banda 1924. urtean.